

# IZUGARRI BATEN JARDUNA

Ni naiz onbretxaparo, txoriak uxatzeko mozorro bat. Ezurrak zurezkoak ditut, ez ezurrezkoak. Aragi bearrean, lasto. Nere jantziak... ai, nere jantziak! Etxeko zarpa guziak gaixo onentzat.

Igandetan, etxeko alaba apain-apain jantzita kalera dijoala, be-kaitzez betea nauzute. Pozik aterako nintzaioke bidera, eta bere soñeko polita, ri-rau! kenduko nioke, "au neretzat, arrayo" esanaz. Bañan ezin, ezin, onbretxaparo, txoriak aizatzeke mozorro bat, berterik enaizelako...

Astegunetan etxekoak soro-lanetan oi-dabiltza nere ondoan. Aien soñeko zarrak ikusteak amorrastzen nau. Adabakiz betetako eta pixa ta gorotzaz zikindutako nagusiaren galtzak, laister neretzat noski. Ezkontza-denborako amonaren gona, koipe ta aurren kaka dariola, laister neretzat. Neretzat zatar zikin guziak! Esango nieke: "arren, etxekoak, zaldun-jantzi garbi eta apaña nai nuke urtean bein geio ezpadare, erriko pestetan edo, nagusiaren egunean edo...". Au eskatuko nieke, bai, bañan ezin, ezin, onbretxaparo naizelako.

Nik beste izenak ere ba ditut: kuzu, txorimalo, izugarri, "espan-tapájaros" (au kaletarrek diote) eta ola. Lurralde ontan, nere zarpak gizonezkoak ba-dira "onbre-txaparo" deitzen didate, eta emakuzmekoak badira, berriz, "andre-txaparo".

Txori-uxatzalle ni, omen. Auxe da lana. Lagun bakarrak ditudan txoriak nik izutu bear... Azia eta landare-aleak jaten dituztela txoriek. Eta neri zer? Jan dezatela nai duten guzia, gosez baldin badira.

Lenengo egunetan txoriak beldur oi-dira nire itzalaz, bañan ni presuna ez naizela konturatzean lagunik ausartena bialtzen didate probalari. Saltoka datorkit ondora, eta mokoakin ale bat arturik, igurtzi baño len, begira gelditzen zait, nere asmoak igertzeke. Nik biotz-biotzetikan esango nioke: "Jan zak, mutil, jan lasai, eta datozela lagunak, danentzat ba-da ta..." Bañan ezin, ezin, maite oriek uxatzeko, ain zuzen, mozorroa naizelako.

Udaberri batean paeta-txoriek kabia egin zuten nigan. Ura izan det nere bizialdi pozgarriena. Paetatxoriak egunez zelaiz zelai zebiltzan lapurretan, eta illunabarrean nigana zetozen lo-egitera. Aien jardun eta berriketak alaitzen ninduten; gabak ain luze eta tristeak ezitzazkidan iruditzen laguntasun arekin. Umeak sortu ziralarik, nire barrungo beroa —lasto-tartean zuurki gordetako bero eskaxa— pres-tatu nuen, txoritxoak bizkortzeko.

Etxekoek kabia ikusirikan “Jesus, Maria ta Jose, ikustekoa ta ez sinistekoa” esan zuten. Egun auetan inguruko jendea. kaletarrak eta guzi, kabia ikustera etorri zan. Eta denak parrez joan. Bañan etxe-koek, gaizto oriek, kabia eta nire erraietako umeak kendu zizkidaten.

Ni enaiz oso zarra, baña ondatu xamarra nago. Neguan ganbaran uzten naute, ezur-utsik, xaguak lagun. Udeberrian, garia edo artoa erein ta bereala, onera ekartzen naute, eta emen utzi, gau ta egun, lurrean tente, besoak zabal, euri, kazkabar, otz eta beroak jasotzen. Ezurak usteltzen asiak ditut, eta orrek bukaeraren asiera dela esan nai du. Negu batean, ganbarara bearrean, surtara.

Gutxi dakit, baña zerbait ikusi det soro ontatik, eta ikusi duana, ikasia ez izan da ere, ezta guztiz motela.

Nik ba-dakit mundu zabalean ni bezelako izugarri asko dela. Eta ni ez bezelakoak ere bai. Ba-dirala mugitzen eta ibiltzen diranak, eta jantzi apaiñak dituztenak. Olako izugarriek, txoriak bearrean, lagunak uxatzen dituzte, azia eta aleak berentzat bakarrik daitezen.

Asko ikusia naiz, bai, soro ontatik. Itzegingo ba-nuke... kontatuko ba-nizueke... Bañan ezin, ezin, onbretxaparo, txoriak aizatzeke zomorro bat, besterik ez naizelako...

AYALDE

